

## **EUSKARA BATZORDEAREN MEMORIA: 2012. URTEAZ**

2012 garren urtean zehar, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Euskara batzodeak, ohizko batzarrak ospatu ditu. Hoetatik, aipamen berezi bat merezi dute, ospatutako batzar eta ekimen hauek:

**2012ko martxoaren 28an,** Xabier Balerdik – (Eusko Jaurlaritzako, Justizia Sailean, Euskara alorreko Teknikari eta Dokumentuen arduraduna) Euskara Batzordera etorri eta “*Auzia Euskaraz*” aurre-proiektua aurkeztu zigun: helburua, egutegia eta abar azalduz. Aurre proiektu hau, aurrekontuen murrizketen ondorioz, ez zuen aurrera egin, eta aurten, 2013. Urtean, berreskuratu da “*Auzi euskaraz berbiztuaren proiektu lelopean*”.

**2012ko uztailan,** Gontzal Aizpurua gure Euskara batzordeko kidea, Madrilen ospatu zen Europako Hizkuntza Minorizatuen inguruko Batzarrean parte hartu zuen. Azaroan, Europako Ministro Batzordeak Espainako Erreinuari zuzendutako gomendioak plazaratu ziran. Aurreko urteetan egindako gomendio berdinak luzatu zitzaion. Gomendioak ingeleses webgune honetan agertzen dira: [http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/Recommendations/SpainCMRe c6\\_en.pdf](http://www.coe.int/t/dg4/education/minlang/Report/Recommendations/SpainCMRe c6_en.pdf)

Hala ere, txosten honetan, gaztelaniaz eransten da, Espainako Erreinuari zuzendutako gomendioen edukia:

"Recomienda que las autoridades de España de tener en cuenta todas las observaciones y recomendaciones de la Comisión de Expertos y, como cuestión de prioridad:

1. modificar el marco jurídico con el fin de dejar claro que las autoridades judiciales penales, civiles y administrativas en las comunidades autónomas lleven el procedimiento en las lenguas cooficiales a petición de una de las partes;
2. adoptar las medidas jurídicas y prácticas necesarias para asegurar que un porcentaje adecuado del personal judicial en las Comunidades Autónomas afectadas por la aplicación del artículo 9 de la Carta tenga un conocimiento práctico de las lenguas pertinentes;
3. revisar los planes de contratación, de carrera y de formación para el personal de las oficinas de la administración del Estado con el fin de asegurar que un porcentaje adecuado del personal en las Comunidades Autónomas cuentan con un conocimiento práctico de las lenguas pertinentes;
4. garantizar la presencia de todas las lenguas regionales o minoritarias en los servicios públicos del Estado;
5. garantizar la presencia de todas las lenguas regionales o minoritarias en la prestación de servicios de salud".

**2012ko irailaren 25ean**, Euskara Batzordeak gonbite berezi bat jazo zuen *“Bilboko lehenengo berbagunean”* parte hartzeko. Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin, Bilboko Udalaren Euskara, Gazteria eta Kirol Arloak eta Bizkaiko Euskara Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta, Bilkoko lehenengo Berbagunea izeneko ekitaldia antolatu zen, irailaren 25ean, Bilboko Alondegian, euskararen erabilera kalera ateratzearen helburuarekin. Ekitaldi horretan kultur arloko (idazleak, bertsolariak, antzerki mundukoak...) kirol arlokoak (Athletic, Euskaltel Euskadi, arraunlariak..., Alderdi político guztietako ordezkariak eta beste sektore batzuetakoak ere (abokatuak...) izan ziran. Euskara Batzordetik Gorka Kuartangok parte hartu zuen.

**2012ko abenduaren 5ean,** Rafa Saiz de Rozas –Arartekoaren bulegoko letratua- Euskara Batzordera etorri zan. Arartekoaren erakundeak prestatutako “*Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena-2011*” aurkeztu zuen. Euskal Herriko Administrazio Publikoaren jardueraren barruan, Justizia arloan aztertutako espedienteak azaldu zuen. Pertsona analisiaren erdigunean kokatzeko beharra: erreklamazioen kudeaketa krisi-testuinguru honetan; epaitegiekin eta fiskaltzarekin elkarlanean egindako kudeaketak; elkarte desbedinekin izandako bileren berri eman zuen; inkomunikazio-araubidean atxilotutako pertsonen berme-sistema hobetzeko neurriei buruzko gomendioen jarraipena eta bukatzeko, Arartekoaren erakundetik Justiziarri zuzendutako gomendioak azaldu zuen.

Harrezkero, Euskara Batzodeak eta Arartekoaren erakundeak kontaktuan daude, eta horri esker, hurrengo maiatzaren 9an, “afari juridikoa” izango dugu eta Iñigo Lamarca izango da gure hizlari eta ponentea.

**Bilbon, 2013ko martxoaren 19an**

**Euskara Batzodea-k**